

2025EKO URTARRILAREN 30EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA

ACTA DE LA SESION CELEBRADA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL
EL 30 DE ENERO DE 2025

MODUA: Presentzialki
TOKIA: Batzar aretoa
EGUNA: Hogeita Hamar
HILABETEA: Urtarrila
URTEA: Bi mila eta hogeita bost.
HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko bostak eta erdi
BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa
DEIALDIA: Lehena
OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MEDIO: Presencial
LUGAR: Salón de Plenos
DIA: Treinta
MES: Enero.
AÑO: Dos mil veinticinco.
HORA DE COMIENZO: Diecisiete horas y treinta minutos.
CARACTER DE LA SESION: Ordinaria.
CONVOCATORIA: Primera
NUMERO DE MIEMBROS QUE LA COMPONEN: Cinco (6)

MAHAIBURUA / PRESIDENTA:
Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

BILDUAK / REUNIDOS:
Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)
Mariola Pascual Paredes (EAJ-PNV)
Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu)
Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Wesley Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE).

IDAZKARIA / SECRETARIA:
ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

1.- AURREKO AKTAK. 2024-12-05 aktaren onepena.

Aipatutako aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako zuzenketarik gabe.

2.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENA:

a.- **KONTRATAZIOA:**

- **KONTRATUA LUZATZEA. BEASAINGO GABONETAKO ARGITERIA HORNITU, MUNTATU, MANTENDU ETA DESMUNTATZEA, EROSTEKO**

1.- ACTA ANTERIOR. Aprobación del acta del 05-12-2024.

Se da cuenta del acta y se aprueba por unanimidad, sin más consideraciones.

2.- PROPUESTA DE LA COMISIÓN DE TERRITORIO:

a.- **CONTRATACIÓN:**

- **PRÓRROGA DE CONTRATO. SUMINISTRO, MONTAJE, MANTENIMIENTO Y DESMONTAJE DEL**

AUKERARIK GABEKO
ERRENTAMENDUAREN BIDEZ.
2023ZEBO0078

ALUMBRADO NAVIDEÑO DE BEASAIN
MEDIANTE ARRENDAMIENTO SIN
OPCIÓN DE COMPRA.

Ezagutzera eman da 2025-1-23ko Lurralde batzordeko proposamena, hau da:

Se da a conocer la propuesta de la comisión de Territorio del 23-1-2025.

“AURREKARIAK

“ANTECEDENTES

I.- 2023-07-20. Gobernu Batzordeak egindako bileran, Beasaingo gabonetako argiteria hornitu, muntatu, mantendu eta desmuntatzea, erosteko aukerarik gabeko errentamenduaren bidez deialdi publikoaren bidez kontratazioa lizitatzea onartu zuen. Horretarako plegu administratiboak eta teknikoak onartu ziren. Prozedura irekia eta tramitazio arrunta.

I.- 20-07-2023. En la reunión celebrada por la Junta de Gobierno se aprobó licitar la contratación mediante convocatoria pública del suministro, montaje, mantenimiento y desmontaje del alumbrado navideño de Beasain mediante arrendamiento sin opción de compra. Para ello se aprobaron los pliegos administrativos y técnicos. Procedimiento abierto y tramitación ordinaria

II.-. Esleipen-irizpideak baloratu ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak, 2023-09-18an egindako Kontratazio Mahaiaren proposamenez, kontratua ARGILINEX, S.L.ri esleitzea erabaki zuen.

II.- Valorados los criterios de adjudicación, la Junta de Gobierno Local, a propuesta de la Mesa de Contratación celebrada el 18-09-2023, acordó adjudicar el contrato a ARGILINEX, S.L.

III.- 2023-10-06an kontratua sinatu zen. Egikaritze epea: 4 hilabete 2023ko azaroaren 1etik kontatzen hasita. Hiru luzapen aurreikusten dira, bakoitza urtealdi batekoa.

III.- El 6/10/2023 se firma el contrato. Plazo de ejecución: 4 meses a contar desde el 1 de noviembre de 2023. Se prevén tres prórrogas de un año cada una.

2024/01/26an 1. luzapenari dagokion kontratua sinatu zen.

Con fecha 26/01/2024 se firma el contrato correspondiente a la 1º prorroga.

Gauzatzeko epea: 4 hilabete, 2024ko azaroaren 1etik aurrera. Lehen luzapenaren kontratuaren amaiera-data: 2025/01/28.

Plazo de ejecución: 4 meses a contar desde el 1 de noviembre de 2024, fecha fin contrato 1º prorroga 28/02/2025,.

IV.- Kontratuaren arduraduna den Zerbitzuburuak 2025-01-16ko datarekin lehen luzapenari dagokion zerbitzuarekiko txostena eman du, gauzatutakoa modu positiboan baloratuz. . Horren ondorioz proposatu du kontratuaren 2. luzapena onartzea eta formalizatzea.

IV.- Con fecha 16/01/2025 el Jefe de Servicios, responsable del contrato ha emitido informe relativo al servicio llevado a cabo en la 1ª prorroga, valorando positivamente lo realizado En consecuencia propone aprobar y formalizar la 2ª prórroga del contrato.

OINARRI JURIDIKOAK

BASES JURIDICAS

Beasaingo gabonetako argiteria hornitu, muntatu, mantendu eta desmuntatzea, erosteko aukerarik gabeko errentamenduaren bidez prozedura ireki bidez kontratatzeke baldintza plegua.

pliego de condiciones para la contratación por el procedimiento abierto para el suministro, montaje, mantenimiento y desmontaje del alumbrado de navidad de Beasain, mediante arrendamiento sin opción de compra.

PROPOSAMENA

Lurralde batzordeak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio, azter dezan:

Lehenik: Kontratuaren 2. luzapena gauzatzea, urtebetez (1) eta egungo baldintzetan, prezioa barne, ARGILINEX, S.L.ri Beasaingo gabonetako argiteria hornitu, muntatu, mantendu eta desmuntatzea, erosteko aukerarik gabeko errentamenduaren bidez kontratua luzatzea,

Bigarren: Luzapena 2025ko azaroaren 1etik 2026ko otsailaren 28ra izango da; epe hau amaitu ondoren, 3. Luzapena, azkena izango dena, beste urte leko luzapen berria egiteko aukera dago.

Hirugarren: ARGILINEX, S.L.ri erabaki honen berri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritziz hauek azaldu dituzte:

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu) jaunak adierazi du, koherentziaz jokatzeko arren, abstenitu egingo dela, gai honen inguruan besteetan ere jarrera hori azaldu duelako.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE).

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da.

- PLEGUAK ONARTZEA ETA DEIALDI PUBLIKOA EGITEA LED KALE-ARGIAK

PROPUESTA

La Comisión de Territorio somete a la consideración de la Comisión de Gobierno, la siguiente propuesta de acuerdo:

Primero: Formalizar la 2ª prórroga del contrato, por un (1) año, y en las actuales condiciones, incluido el precio, el contrato de suministro, montaje, mantenimiento y desmontaje del alumbrado de Navidad de Beasain, mediante arrendamiento sin opción de compra, a ARGILINEX, S.L

Segundo: La prórroga tendrá efectos desde el día 1 de noviembre de 2025 hasta el día 28 de febrero de 2026; una vez finalizado este período existe posibilidad de llevar a cabo la tercera, y última, prórroga por 1 año de duración.

Tercero: Dar traslado de este acuerdo a ARGILINEX, S.L.”

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones.

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu) manifiesta que por coherencia se abstendrá, ya que en otras ocasiones ha adoptado esa postura sobre este tema.

Tras realizar la votación se ha obtenido el siguiente resultado:

Votos a favor: 5 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE).

Votos en contra: 0

Abstenciones: 1 (Beasaingo EH Bildu)

En consecuencia, se aprueba la propuesta con la mayoría absoluta.

- APROBACIÓN DE PLIEGOS Y CONVOCATORIA PÚBLICA PARA CONTRATAR EL SUMINISTRO Y

HORNITZEA ETA MUNTATZEA. 2. FASEA:
EZKIAGA-ERAUSKIN. 2024PROB0004

2025-1-23ko Lurralde Batzordeko proposamenaren berri eman da: Aipatutako lizitazioa egitea deialdia publikoa eginez, baldintza administratibo eta teknikoak onartuz.

1.- *Prozedura: irekia publikizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.*

2.- *Izapidetzea: arrunta*

3.- *Lizitazio prezioa: 139.238,39 €, BEZ gabe.*

4.- *Egikaritze epea: 16 aste zuinketa akta egiaztatzen denetik kontatzen hasita. Egiaztatuko da 15 egun naturaleko epean kontratua sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita..*

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantzarioa:*

Urteko negozio-bolumena, kontratuaren esparruari dagokiona. Azken hiru urteetako ekitaldi oneneko negozio-bolumena izango da; kontuan hartuta enpresaburuak enpresa noiz sortu duen edo jarduerak noiz hasi dituen eta eskaintza noiz aurkeztu duen. Zenbatekoa: 208.857,59 € gutxienez.

6.- *Kaudimen teknikoak: Azken 3 urteetan antzeko hornidurak egin izanaren zerrenda. Egikaritze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren urteko batez bestekoaren %70 edo gehiago: $139.238,39 \times 0,7 = 97.466,87$ €.*

7.- *Aurkezteko epea eta lekua: 26 egunekoa kontrataziorako plataforman iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita . Lizitazio elektronikoa.*

8.- *Adjudikazio irizpideak:*

Formula automatikoen bidez baloratzen ez diren irizpideak (40 puntu)

Memoria teknikoak: 5 azpirizpide (40 puntu)

Hurrengo fasera igarotzeko gutxienezko atalasea, %50ekoa da: 20 puntu.

Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (60 puntu)

- Eskaintza ekonomikoa. 50 puntu.

Atal hau ebaluatzeko, Zerbitzu Teknikoek alde aurretik homogeneizatuko dituzte,

Puntuazioa ezartzeko, honela banatuko da:

MONTAJE DE LUCES LED. 2ª FASE:
EZKIAGA-ERAUSKIN.

Se da cuenta de la propuesta de la Comisión de Territorio de 23-1-2025 de proceder a la licitación de referencia mediante convocatoria pública, aprobando el Pliego de Cláusulas Administrativas y Técnicas.

1.- *Procedimiento: abierto con publicidad. Licitación electrónica.*

2.- *Tramitación: ordinaria.*

3.- *Precio de licitación: 139.238,39 €, sin IVA.*

4.- *Plazo de ejecución: 16 semanas desde la comprobación del acta de replanteo, que tendrá lugar a los 15 días naturales a contar del siguiente al de la firma del contrato.*

5.- *Solvencia económica y financiera:*

Volumen anual de negocios, en el ámbito al que se refiera el contrato, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del empresario y de presentación de las ofertas por importe igual o superior a: 139.238,39 € más IVA $21\% \times 1,5 = 208.857,59$ €

6.- *Solvencia técnica: Relación de los principales servicios o trabajos realizados de igual o similar naturaleza en el curso de los tres últimos años que deberá alcanzar al menos la cuantía de 139.238,39 € $\times 0,7 = 97.466,87$ €, (70% de la anualidad media del contrato) en el año de mayor ejecución.*

7.- *Plazo y lugar para la presentación de proposiciones: 26 días naturales contados desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil del contratante.*

8.- *Criterios de adjudicación:*

Criterios de valoración no evaluables automáticamente (40 puntos)

Memoria técnica: 5 subcriterios (40) puntos

Para pasar a la siguiente fase, la puntuación a obtener en ésta será al menos 20 puntos.

Criterios mediante la utilización de fórmulas automáticas. (60 puntos)

Oferta económica. 50 puntos.

Para la evaluación de este apartado se homogeneizarán previamente por los Servicios Técnicos.

La puntuación se asignará de la siguiente manera:

0 puntu emango zaizkio lizitazioaren oinarritzko aurrekontua berdintzen duen eskaintzari, eta 2 puntu gehituko zaizkio % 1eko beherapen bakoitzeko; gehienez 100 puntu emango dira, beherapenen batek % 50 gainditu ezean, orduan 100 puntu emango baitzaizkio, eta gainerakoa interpolatu egingo da.

$B_{max} \leq 50\% \ggg P = 200 \times B$

$B_{max} > 50\% \ggg P = 100 \times B / B_{max}$

Izanik,

P: Baloratu beharreko eskaintzaren puntuazioa.

B: Baja = 1 - (Eskaintako prezioa) / (Lizitazioaren gehieneko aurrekontua).

B_{max}: Onartutako gehieneko beherapena.

Horrela lortutako emaitzari atal ekonomiko honek puntu kopuru osoan duen portzentajea aplikatuko zaio.

- Pleguan ezarritako berme epea handiagoa proposatzea: 10 puntu.

Modu honetan balioztatuko da:

Agirian ezarritako berme epea baino luzeago bat aurkezten duen eskaintzaileak, hau da, 2 urtetik gorako berme epea, puntu 1,25 puntu eskuratuko ditu gehiegizko urte bakoitzeko, gehienez ere 10 puntura iritsi arte. (Gehieneko puntuazioa lortuko da eskaintzaileak 10 urteko berme-epea eskaintzen duenean, pleguari dagozkion 2 urte, gehi eskaintako bermea 8 urte). Berme-epe gisa pleguan ezarritakoa aurkezten duen eskaintzak (urte 2) zero puntu lortuko ditu.

Eskaintza anormalki baxutzat hartuko da onartutako eskaintzen batez bestekoa baino 20 puntu baxuagoa den baja duena. Eskaintza ekonomikoaren bideraezintasuna zehazteko parametro objektibotzat hartuko dira soldata-betebeharrei, gizarte-segurantzako kotizazioei, absentismoari, prestakuntzari, azterketa medikoei eta abarri erantzuteko beharrezkoak diren kostuak estaltzera iristen ez direnak.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

11.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak:

Kontratua egikaritzeko langile berriak kontratatzea beharrezkoa balitz eta enpresa kontratistak edo

Sobre 100, se otorgará 0 puntos a la oferta que iguale el presupuesto base de licitación e incrementando 2 puntos por cada 1% de baja, siendo la puntuación máxima de 100 puntos, salvo que alguna baja supere el 50%, en cuyo caso se le otorgarán 100 puntos y se interpolará el resto.

Para $B_{max} \leq 50\% \ggg P = 200 \times B$

Para $B_{max} > 50\% \ggg P = 100 \times B / B_{max}$

Siendo,

P: Puntuación de la oferta a valorar

B: Baja = 1 - (Precio ofertado) / (Presupuesto máximo de licitación)

B_{max}: Baja máxima admitida

Al resultado así obtenido, se le aplicará el porcentaje que representa este apartado económico en el total de puntos.

Plazo de garantía superior al establecido en el pliego: 10 puntos

Se valorará de la siguiente manera:

El ofertante que presente un plazo de garantía superior al establecido en el pliego; es decir, superior a 2 años, obtendrá una puntuación de 1,25 puntos por año de más ofertado, hasta un máximo de 10 puntos. (La máxima puntuación se alcanzará cuando el ofertante ofrezca un plazo de garantía de 10 años, 2 correspondiente al pliego más 8 de garantía ofertada). La oferta que presente como plazo de garantía la establecida en el pliego (2 años) obtendrá cero puntos.

Se considerará oferta anormalmente baja, aquella cuya baja sea 20 puntos inferior a la media de las ofertas admitidas. Se considerará como parámetro objetivo para determinar la inviabilidad de la oferta económica aquellas que no alcancen a cubrir los costes necesarios para atender las obligaciones salariales, cotizaciones de seguridad social, absentismo, formación, revisiones médicas, etc.

9.- Lugar, día y hora para la apertura de proposiciones: la apertura de plicas se realizará en el lugar, día y hora que se publique en el perfil del contratante.

10.- Documentación a presentar: los licitadores deberán presentar la documentación que se indique en el pliego de condiciones administrativas.

11.- Condiciones especiales de ejecución del contrato: En el caso de que para la ejecución del contrato sea necesaria una contratación nueva de personal y la empresa contratista o subcontratista

azpikontratistak emakumeen ordezkaritza ez orekatua balu langileen artean, kontratua egikaritzeko eta egikaritze epe osoan zehar, gutxienez ere, emakume bat kontratatu beharko du langile berri moduan edo, gutxienez ere, aldi baterako kontratatutako emakume bati kontratu mugagabea egin beharko dio. Langile multzoa ez orekatua dela ulertuko da emakumeak guztizko langileen %40ra iristen ez direnean.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Informazio gisa adierazi da Ormaiztegi norantzako bidegorrian jarritako led argiteria, datorren astean martxan jarriko dela.

- KONTRATUAREN LAGAPENA: HIRI ANTOLAKETA EGITASMO OROKORRA. 2017IDBO0020

Ezagutzera eman da 2025-1-23ko Lurralde batzordeko proposamena, Beasaingo Hiri Antolaketa Orokorra idazteko kontratua lagatzeari buruzkoa:

“AURREKARIAK

I.- Aipatutako zerbitzua kontratatzeko lizitazio-prozedura izapidetu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017-11-30ean egindako bilkuran, SABAI ARKITEKTOAK, SLPren aldeko esleipen-proposamena egitea erabaki zuen.

II.- Enpresak, esleipendun gisa, fidantza, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateari, ekonomia-jardueretan alta emateari eta eskaintza aurkeztean proposatutako bitartekoak atxikitzea eta gainerako dokumentazioa aurkeztu ondoren, behin betiko esleipen-ebazpena eman zuen alkateak 2017-12-29an.

III.- Administrazio-kontratua 2018-01-31n sinatu zen, 46 hilabeteko epealdiarekin, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Hainbat arrazoi direla medio, atzeratu egin da plana gauzatzeko faseen betetzea. Laster aurkeztu zaio Osoko Bilkurari dokumentua behin-behinean onesteko eta ondoren, izapidetzeekin jarraituko da, Beasaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onesteko eta indarrean sartzeko.

cuenta con una representación desequilibrada de mujeres en la plantilla, deberá realizar para la ejecución del contrato y durante todo el plazo de ejecución, al menos una nueva de contratación de mujer o transformar al menos una contratación temporal de mujer en contratación indefinida. Se entenderá por plantilla desequilibrada aquella que cuente con una representación o presencia de mujeres inferiores al 40% del total de esta.”

En el turno de intervenciones los asistentes se muestran de acuerdo con la propuesta.

Tras realizar la votación se aprueba la propuesta por unanimidad.

Como información se ha indicado que la iluminación led instalada en el bidegorri de sentido Ormaiztegi se pondrá en marcha la próxima semana.

- CESIÓN DE CONTRATO: PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA.

Se da a conocer la propuesta de la Comisión de Territorio del 23-1-2025 sobre cesión del contrato para la redacción de la Ordenación General Urbana de Beasain:

“ANTECEDENTES

I.- Previa tramitación del correspondiente procedimiento de licitación para contratar el servicio indicado, la Junta de Gobierno Local en la sesión celebrada el 30-11-2017 acordó efectuar propuesta de adjudicación a favor de SABAI ARKITEKTOAK, SLP.

II.- Tras la presentación por parte de la empresa propuesta como adjudicataria la fianza y resto de documentación relativa a estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, alta en actividades económicas y adscripción de medios propuestos al presentar la oferta, el Alcalde dictó resolución de adjudicación definitiva con fecha 29-12-2017.

III.- El contrato administrativo se firmó el 31-01-2018 con un plazo de ejecución de 46 meses a contar desde el día siguiente al de la formalización del contrato.

Por diversas circunstancias, se ha ido demorando el cumplimiento de las distintas fases de ejecución del mismo. En breve se someterá a Pleno la aprobación provisional del documento para posteriormente continuar con la tramitación que desemboque en la

IV.- 2024-12-13ko erregistro elektronikoaren bidez (2024-7680 zk.), SABAI ARKITEKTOAK, SLPk honako hau jakinarazi zuen:

- 2024-12-31n enpresaren jarduera etetea eta, ondoren, 2025eko lehen hiruhilekoan desegitea eta likidatzea.
- Kontratuaren eskubide eta betebeharretan subrogatuko da arkitektoa den Agustín Errea Oiarzabal pertsona fisikoan, hain zuzen ere, sozietate horren bazkide fundatzailea eta Informazio eta Diagnostikoaren, Irizpide eta Helburu Orokorren Aurrerapenaren eta hasierako onespeneren dokumentuaren erredakzio-taldearen zuzendaria izan denarengan.
- Kontratataren izenean eratutako abala kendu egingo da, eta haren ordeaz beste abal bat jarriko da, Agustín Errea Oiarzabalen izenean.

V.- Udal idazkariak, 2025-01-20an, atxikitzen den txostena eman du aurkeztutako eskabideari buruz, eta ondorengo ondorioztatu du:

- Ez da “kontratista-ondorengotza”, kontratua sozietate bati esleitu behar zaiolako, eta ez pertsona fisiko bati.
- “Kontratuaren lagapena” izango litzateke, baina horretarako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 226. artikulua aipatutako baldintzak bete behar dira, hau da:

1.- Lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak ez izatea.

2.- Lagapenaren ondorioz merkatuko lehia ez mugatzea.

3.- Hirugarren bati lagatzeak kontratataren ezaugarriak funtsean ez aldatzea, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua badira.

4.- Baldintza hauek betetzea:

- a) Kontratazio-organoak, aldeaz aurretik eta berariaz, lagapena baimentzea.
- b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez gauzatu izatea, edo, zerbitzu publikoaren kudeaketaren kasuan, kontratuaren iraupen-epearen bostena gutxienez ustiatu izana. Baldintza hori ez da aplikatuko baldin eta lagapena esleipenduna konkurtsoan dagoenean egiten bada, nahiz eta likidazio-fasea ireki.

aprobación definitiva y entrada en vigor del Plan General de Ordenación Urbana de Beasain.

IV.- Mediante registro electrónico de fecha 13-12-2024 (nº 2024-7680), SABAI ARKITEKTOAK, SLP, comunica:

- El cese de la actividad de la empresa a 31-12-2024 y su posterior disolución y liquidación en el primer trimestre de 2025.
- La subrogación de los derechos y obligaciones del contrato en la persona física del arquitecto Agustín Errea Oiarzabal, socio fundador de la referida Sociedad y director del equipo redactor de los documentos de Información y Diagnóstico, Avance de Criterios y Objetivos Generales y Documento de aprobación inicial.
- Que procederá a la retirada del aval constituido a nombre de la contratista y lo sustituirá por uno nuevo a nombre de Agustín Errea Oiarzabal.

V.- La Secretaria municipal con fecha 20-01-2025 ha emitido el informe adjunto en relación a la solicitud presentada y concluye:

- No se trata de una “sucesión del contratista”, porque el contrato debe atribuirse a una sociedad y no a una persona física.
- Se trata de una “cesión del contrato”, que está sujeta al cumplimiento de las condiciones del artículo 226 del texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, a saber:

1.- Que las cualidades técnicas o personales del cedente no hayan sido razón determinante de la adjudicación del contrato.

2.- Que de la cesión no resulte una restricción efectiva de la competencia en el mercado.

3.- Que la cesión a un tercero no suponga una alteración sustancial de las características del contratista si éstas constituyen un elemento esencial del contrato.

4.- Que se cumplan los siguientes requisitos:

- a) Que el órgano de contratación autorice, de forma previa y expresa, la cesión.
- b) Que el cedente tenga ejecutado al menos un 20 por 100 del importe del contrato o, cuando se trate de la gestión de servicio público, que haya efectuado su explotación durante al menos una quinta parte del plazo de duración del contrato. No será de aplicación este requisito si la cesión se produce encontrándose el

- c) Lagapen-hartzaileak Administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna eta eska daitekeen kaudimena izatea; behar bezala sailkatuta egon beharko du, baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio, eta ez dago kontratatzeko debekuaren kausaren batean sartuta.
- d) Lagapena adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen artean formalizatzea, eskritura publikoan.

5.- Lagapen-hartzailea lagatzaileari legozkiokkeen eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da.

VI.- Lurralde saileko Zerbitziburua Buruak 2025-01-21eko datarekin atxikitzen den txostena eman du adieraziz, lagatzaileak (SABAI ARKITEKTOAK, SLP), kontratu-zenbatekoaren % 20a baino gehiago gauzatu duela.

OINARRI JURIDIKOAK

Legeri aplikagarria:

- 1.- Kontratua arautzen duen plegu administratiboa.
23. Artikulua: Kontratuak lagatzeari dagokionez, SPKLko Testu Bategineko 226. artikuluan ezarritakoa beteko da.
- 2.- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena: 226. artikulua, kontratuen lagapena (edukiaren berri aurrekarien V. Puntuan eman da).
- 3.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Lehen Xedapen Iragankorra, 2 (Lege hau indarrean sartu aurretik esleitutako administrazio-kontratuen araubidea) eta Azken xedapenetako hamaseigarrena (Legea Indarrean jartzea).

Horren ondorioz Lurralde saileko batzordeak, Tokiko Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Ondorengo aitortzea: Adierazitako arrazoiengatik, ez dira ematen kontratistaren ondorengotzarako inguruabarrak, eta, beraz, kontratuaren lagapen kategoria aplikatu litzateke.

Bigarren. SABAI ARKITEKTOAK, SLPri baimena ematea Beasaingo Hiri Antolaketa Orokorra idazteko "kontratuaren lagapena", Agustín Erre Oiarzabal arkitekto jaunaren alde egitea, arrazoi hauek ematen direlako:

- 1.- Lagatzailearen ezaugarri teknikoak ez ziren kontratua esleitzeko erabakigarriak izan, eskaintza ekonomikoa baizik.
- 2.- Plan Orokorren konplexutasuna kontuan hartuta, eta lanketa aurreratuaren fasean dagoenez, zailtasun jartzen da geratzen denaren idazketa

adjudicatario en concurso aunque se haya abierto la fase de liquidación.

- c) Que el cesionario tenga capacidad para contratar con la Administración y la solvencia que resulte exigible, debiendo estar debidamente clasificado si tal requisito ha sido exigido al cedente, y no estar incurso en una causa de prohibición de contratar.
- d) Que la cesión se formalice, entre el adjudicatario y el cesionario, en escritura pública.

5.- El cesionario quedará subrogado en todos los derechos y obligaciones que corresponderían al cedente.

VI.- El Jefe de Servicios del área de Territorio con fecha 21-01-2025 ha emitido el informe adjunto indicando que, el cedente (SABAI ARKITEKTOAK, SLP), ya ha ejecutado más del 20 por 100 del importe del contrato.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Legislación aplicable:

- 1.- Pliego de condiciones administrativas que rige el contrato. Artículo 23: En lo referente a la cesión de contratos se estará a lo establecido en el art. 226 del TR de la LCSP.
- 2.- Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público: Artículo 226, cesión de los contratos (de su contenido se ha dado cuenta en el punto V de los antecedentes).
- 3.- Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público: Disposición Transitoria Primera, 2 (sobre régimen jurídico de los contratos administrativos adjudicados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Ley) y Disposición final decimosexta (entrada en vigor de la Ley).

En consecuencia la comisión del área de Territorio, somete a la consideración de la Junta de Gobierno Local, la siguiente propuesta de acuerdo:

Primero. Declarar que, por las razones apuntadas, no se dan las circunstancias para la sucesión del contratista, por lo que sería aplicable la categoría de la cesión del contrato.

Segundo. Autorizar a SABAI ARKITEKTOAK, SLP, la "cesión del contrato" para la redacción del Plan General de Ordenación Urbana de Beasain, a favor del arquitecto D. Agustín Erre Oiarzabal, por las siguientes razones:

- 1.- Las cualidades técnicas del cedente, no fueron las determinantes de la adjudicación del contrato, sino que lo fue la oferta económica.

(behin-behineko eta behin betiko onespen-dokumentuak eta, hala badagokio, Testu Bateratua), kontratatzeko lizitazio berri batekin lehia sustatuko litzatekeen.

3.- Hirugarren bati lagatzeak ez du esan nahi kontratistaren ezaugarriak funtsean aldatzen direnik. Kasu honetan gainera, lagapen-hartzailea kontratistaren taldearen zuzendaria eta, era berean, orain arte egindako dokumentuaren erredaktore nagusia, izan da. Berak ezagutzen du ondoen orain arte egindako dokumentuaren edukia eta jarraitu den tramitazioa.

Hori dela eta, kontratua proposatzen denari lagatzen bazaio, bere jarraipena bermatuta egongo litzateke.

4.- Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20a baino gehiago egikaritu du.

Hirugarrena. Baimena emateko, lagapen-hartzaileak, Agustín Errea Oiarzabal jaunak, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu 15 egun balioduneko epean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita:

1.- Erantzukizunpeko aitorpena, SPKLren testu bateginaren 60. artikuluan jasotako kontratatzeko debekurik ez duela adierazten duena.

2.- Kontratuaren esleipendunari eskatzen zaizkion kaudimen-baldintzak betetzen dituela, hau da:

- Kaudimen ekonomikoa: arrisku profesionalengatiko kalte-ordainetarako 250.000,00 euroko aseguru duela egiaztatzen duen agiria. Lagapen-hartzailearen aldeko poliza aurkeztu beharko da.
- Lanbide-kaudimena: Honako giza baliabide hauek dituela egiaztatzen duen dokumentazioa:
 - Lege-aholkulari bat, zuzenbidean lizentziatua.
 - Ingurumen-teknikari bat edo enpresa profesional espezializatu bat.
 - Bide, ubide eta portuetako ingeniaria.
 - Topografiako teknikaria edo enpresa profesional espezializatua.
 - Betebehar sozialak betetzeaz arduratzen den teknikaria edo enpresa profesional espezializatua.
 - Komunikazio-teknikaria edo enpresa profesional espezializatua.

Lagapen-hartzailearen eta kaudimena integratzeko baliatzen dituen bitartekoen artean izenpetutako konpromisoa aurkeztu beharko da, honako hauek jasoko dituen:

2.- Teniendo en cuenta la complejidad del Plan General y que se encuentra en una fase de elaboración avanzada, sería cuestionable si con una nueva licitación para contratar la redacción de lo que resta (documento de aprobación provisional, definitiva y, en su caso, del Texto Refundido), se promovería la concurrencia.

3.- La cesión a un tercero no supone una alteración sustancial de las características del contratista. En este caso además el cesionario al haber sido el director del equipo del contratista y, a su vez, el principal redactor del documento hasta ahora elaborado, es quien mejor conoce su contenido y la tramitación que se ha seguido.

Por esa razón con la cesión del contrato a favor de quien se propone, se presume garantizada su continuidad.

4.- El cedente ha ejecutado más que un 20 por 100 del importe del contrato.

Tercero. La autorización queda condicionada a que el cesionario, D. Agustín Errea Oiarzabal, en el plazo de 15 días hábiles a contar del siguiente al de la notificación del presente acuerdo, aporte la siguiente documentación:

1.- Declaración responsable de que no incurre en ninguna de las prohibiciones de contratar contenidas en el artículo 60 Texto Refundido de la LCSP.

2.- Que cumple los requisitos de solvencia exigidos al adjudicatario del contrato, esto es:

- Solvencia económica: justificante de la existencia de un seguro de indemnización por riesgos profesionales por importe de 250.000,00 €. Se deberá presentar póliza a favor del cesionario.
- Solvencia profesional: Documentación acreditativa de la efectiva disposición de los siguientes medios humanos:
 - Un/a asesor jurídico/a, licenciado/a en derecho.
 - Un/a técnico/a medioambiental o empresa profesional especializada.
 - Ingeniero/a de Caminos Canales y Puertos.
 - Técnico/a en topografía o empresa profesional especializada.
 - Técnico/a encargado del cumplimiento de obligaciones de carácter social o empresa profesional especializada.
 - Técnico/a de comunicación o empresa profesional especializada.

- Kontratua gauzatzen den bitartean baliabide horiek izatea baieztatzea.
- Profesional horiek bateraezintasun-erregimen bat onartzen dute Beasaingo Udal Administrazioa ez den beste erakunde batzuek egindako lan partikularretan edo enkarguetan parte hartzeko, plangintza idatzi bitartean Beasaingo udalerrian jarduketak egiteko, plangintza behin betiko onartu eta bi urtera arte.

- Foru Ogasunak edota, hala badagokio, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak igorritako ziurtagiri positiboa, zerga betebeharrak betetzen dituela egiaztatzekoa (ziurtagiriek sei hilabeteko baliotasuna dute igortzen diren unetik aurrera).
- Gizarte Segurantzako edo, hala badagokio, dagokion Mutualitateko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko ziurtagiri positiboa (ziurtagiriek sei hilabeteko baliotasuna dute igortzen diren unetik aurrera).
- Indarrean dagoen ekitaldiari dagokion alta edo Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpen batekin osatua, eta, hala badagokio, salbuespen-kasua adieraziko du.

2.- Lagapena esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen artean formalizatzea, eskritura publikoan.

3.- Agustín Errea Oiarzabal jaunaren izenean abal edo fidantza bat aurkeztea, kontratuaren esleipendunari eskatu zitzaion zenbateko berekoa: 15.000,00 €”.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute:

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Se deberá presentar compromiso suscrito entre el cesionario y los medios de los que se vale para integrar la solvencia, en el que conste:

- La disposición de los mismos durante la ejecución del contrato.
- Que los citados profesionales aceptan un régimen incompatibilidad para participar en trabajos particulares o debidas a encargos de entidades distintas a la Administración Municipal de Beasain, para actuaciones en este término municipal durante la redacción del planeamiento, hasta dos años después de la aprobación definitiva del mismo.
- Certificación positiva expedida por la/s Hacienda/s Foral/Forales y/o, en su caso, por la Agencia Estatal de la Administración Tributaria, acreditativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias (los certificados tienen validez de seis meses desde su expedición).
- Certificación positiva acreditativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social o, en su caso, con la Mutualidad correspondiente (los certificados tienen validez de seis meses desde su expedición).
- Alta referida al ejercicio corriente o el último recibo del Impuesto sobre Actividades Económicas, completado con una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del citado impuesto.

2.- Que la cesión se formalice, entre el adjudicatario y el cesionario, en escritura pública.

3.- La presentación de un aval o fianza a nombre de D. Agustín Errea Oiarzabal, por igual importe del exigido al adjudicatario del contrato: 15.000,00 €.”

En el turno de intervenciones los asistentes se muestran de acuerdo con la propuesta:

Tras realizar la votación se aprueba la propuesta por unanimidad.

4.- RUEGOS Y PREGUNTAS

En el apartado de ruegos y preguntas no se ha formulado ninguna.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera seiak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.

Y sin más asuntos que tratar, la sesión ha finalizado a las diecisiete horas y cincuenta y cinco minutos, y yo como Secretaria doy fe extendiéndose la presente acta.